

2025.09.25 Bizkaiko Politika

Orokorreko osoko bilkura

**Jesús Lekerikabeaskoaren hitzaldia,
Euzko Abertzaleak taldeko bozeramailea**

25.09.2025 Pleno de Política

General de Bizkaia

**Intervención de Jesús Lekerikabeaskoa,
portavoz del grupo Euzko Abertzaleak**

Ahaldun Nagusi andrea, ahaldunok, batzarkideok eta bertaratu zareen guztioi, eguerdi on.

Gaur esan dan moduan, legegintzaldiko bigarren Politika Orokorreko osoko bilkuran gagoz. Legegintzaldia aurrera daroagu, eta ez dot esaten doa, daroagu esaten dot, hemen berez ezer ez doalako. Dagoeneko egun gitxiago daukaguz aurretik, atzean itxi doguzanak baino.

Politika Orokorreko osoko bilkuretan, ohiturea mantenduz, beti, beti ikusten dogun moduan, alderdien partetik jokabide bardin edo antzekoa errepikatzen da. Kontua da, alderdi desbardineta ordezkariorik, Ahaldun Nagusiak bere hitzaldia amaitu ondoren, atril honetara igoten garela eta aurretik idatzita edo pentsauta daukaguna esaten edo irakurtzen dogula. Entzuten gaituenentzat, mundu desbardineta gagozela emoten dau, egoeren edo errealtatearen irakurketa oso desbardinak egiten doguzelako. Alde baten, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu taldea daukagu, bere eguneroko lanagaz arazoei konponbidea emoten deuten taldea. Haren atzean edo alboan, gobernu babesten dogun alderdiok gagoz. Beste aldean, oposizioa dago, kontrol eta kritika egiteko lana izan beharko leukena. Baina, sarritan, izan beharko ez leuken moduan, populismoan murgiltzen zaree, demagogian askotan eta gehienetan, hemen oposiziotik eskatzen deuskuzuen formulak, gero, agintzen dozuen lekuetan, ez dozuez egiten, koherentziatik urrunduz eta zilegitasuna galduz, nire ustez.

Bistakoa da, gobernu taldearen eta hura babesten dogun alderdien egitekoa bat dala, eta oposiziokoa beste bat; hori danok daukagu garbi politikan. Baina kritikek ezin dabe izan batzuen eskusibidatea; geuk be badaukagu beste alderdien lana baloratu edo kritiketako eskubidea: zeuek egiten dozuena edo egiten ez dozuena, zeuek esaten dozuena eta zuen jarrera, baita be.

Baina nik, lehenengo, ohitureari jarraituz, gobernuaren lanaren inguruan egingo dot berba. Gero, gerokoak. Gobernuaren buru Etxanobe Ahaldun Nagusia daukagu, eta beragaz batera gobernu taldea osatzen daben diputatu guztiak, erronka eta eginkizun nagusi batekaz: bizkaitarren alde buru-belarri lan egitea, guztien egunerokotasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko helburuagaz. Epe laburreko egoeretan, bai; hankak lurrean ipiniz eta gizartea entzunez, ez zaratan dabizenak bakarrik, isilik dagoenak be entzuten jakin behar dalako. Bizkaia danok osatzen dogu, nahiz eta batzuk beste gauza bat pentsau. Eguneroko lana ondo egitea derrigorrezkoa da instituzinoak gidatzen dabezanentzat, baina epe ertain eta luzera begira ezinbestekoa da lana ondo eta konpromisoz egitea. Askoz errazagoa da kalean efektu arin eta gustukoak euki ahal dabezan neurriak eta ekintzak bakarrik burutzea, kostu gitxigaz, arrisku gitxigaz eta emaitza

bizkorra bilatuz. Batzuek estilo edo egiteko modu hori dauke, eta leku batzuetan sarritan aplikatzen dabe, baina, normalean, hori ez da gure estiloa.

Badakigu, epe ertain eta luzerako proiektuek izeten dizela, egunerokotasunien arazo gehien emoten eta lan gehien exijitzen dabenak. Obra haundi batek eragozpen haundijek sortzen ditu, denbora luzie irauten daben proiektu batek eragozpenak denbora luzien eragiten ditu, eragozpen asko, jente askori, denbora askotan, eta horretarako diru asko bideratu bihera egoten da, horrek dakarren ondorijuaz eta kudeaketa arazuaz. Aldaketak arriskue dakar. Sahiesbide batek, eraikin berri batek, garraio azpiegitura batek, edozelako azpiegitura handi batek, edo gaur egungo sistema edo modelo aldaketa batek, danak kezkie eta arriskue dakarre. Ez da egon Bizkaijen inoiz, proiektu esanguratsurik eta eraldatzailerik kontrako zaratarik edo talderik euki ez dabenik. Horren aurrien herri eta aberri interesa jarri biher da beti, alderdi eta norbere interes pertsonalen gainetik eta aurretik.

Batzutan momentu gogorak kudeatu biher dire baina oso garrantzitsue dire, kasu horretan, esan dodan modure, jarrerie eta konpromisue. Holako egoeratan, agintari on batek, zarata artien isiltasune entzuten eta irakurtzen be jakin biher dau. EAJk Bizkaijen hori ein dau urte askotan, hori eitxen dago gaur egun eta hori eingo dau aurrerantzien be, gizartiek guregan konfidantzie daukon bitxartien. Herri sahiesbide guztijek, Metroko lineak, Guggenheim, ogasuneko sistema aldaketak, Batuz, TicketBAI, egoitzetako eredu egokitze obrak, garraio publikoko aldaketak eta proiektu handi guztijek. Danak kezkie eta kontrakotasuna eragin dabe. Gehijenak, beti izen dabez oposizioko alderdi berdintsuek edo antzekuek ezezkuen. Taldien izena, kolorie edo aurpegije aldatute bada be, oposizino ez eraikitzaile horretan beti egon zarie batzuk.

Hori ukatu ezin dan errealitate bat da, baina badago beste errealitate esanguratsu bat Bizkaian: kudeaketa lana eta aginte makila, demokrazi aldi honetan, bizkaitarrek beti jarri dabela EAJren eskuetan; hori be ukaezina da. Bizkaitar asko eta asko, gaur egun be, guaz konprometitzen dira, eta gu, Aldundia babesten dogun alderdiak eta Aldundia bera, bizkai guztiarekin konprometitzen gara; baina ez edozelan. Lehenengo eta behin, hauteskundietan aurrez aurre, oposizioko alderdiek kontrako jarrera agertzen dabezan proiektu askotan, guk herritarrei aurrez aurre eskaini eta azaldu deutseguz beti. Nagusiaren egoitza modeluari buruz, zaintza modeluari buruz, berba egin gendun eta jaso gendun gure programan. Garraioari buruz berba egin gendun, eta egin gendun gure eskaintza. Metroei buruz, nundik nora eta nola joan behar dan esan gendun, kasu honetan gure konpetentzia zuzena ez izanda arren, lurralde kohesioaren alde egiten dabelako. Aldundia hor dago, bere aldetik ipintzen linea desberdinak aurrera eramateko. Bizkaibus leku askotan hobetzen jarraitzen dabela esan gendun, eta gehienbat, berau garraio publiko bakarra dan lekuetan. Egin gendun gure eskaintza. Azpiegitura handien inguruan berdin. Eskaintza horrek, eta beste asko, herritarren gehienek onartu ebezan gu aukeratzean. Baina guk harantzago jarraitu gendun. Alderdi sozialistarekin alderatuta, alderdi ezberdina da eta gauza batzuetan irizpide desberdinak izango dituzte, baina eurekin batera, herritarrengako konpromiso hori handitu eta adostu gendun, eta hemen gaude oin konpromiso hori betetzen.

Etzanobe Ahaldun Nagusiak ondo azaldu daben moduan, bizkaitarren alde sinatu gendun konpromisoak betetzen gagoz. Gure aurreko lanak eta konpromisoek gaur egun dagozen lekura ekarri gaituzte, eta Etzanobe andrea buru daben Aldundi honen konpromisoek eta lanak aurrera eramango gaituzte. Azaldu ditugu sei ardatzak eta neurriak, azaldu dau betetze egoera. Dana ez dago eginda, dana ez dago perfektu, eta dana ez dogu guk nahiko gendun bezain bizkor eta gustura egiten. Ez gara perfektuak, eta gure planteamenduek edo proposamenek, hoberako egokitxu beharra badago, egokitzen doguz, ezelako atxeki edo konplexurik gabe.

Aldundi honek egiten daben guztia, ugaria da, Bizkaia osorako onerako borondateaz egiten dau, bizkaitar gehiengo nagusien onerako. Baina nik esandakoa, holan ez dala pentsatzen dutenak esan daiezela. Esan daiezela ze neurri edo ze proiektu konkretu diren, baina ez dira Bizkaian onerako diren guztiak eta ez dute zergatik azaldu behar izan.

Esandako guztitik, zer dago txarto? Jarri daigun mahai gainean eta aztertuko dogu. Eta aztertu eta berba egin ondoren, ados jartzen ez bagara, bakoitza bere bidetik eta herriak epaitu edo baloratu gaitzala. Nik holan ulertzen dot gure egitekoa. Ze hemen, askotan, emoten dau herriaren ahotsa, osotasunean, oposizioko alderdiok zariela, zuek bakarrik. Emoten dau zuek herritar guztien izenean berba egiten dozuela. Eta gu non geratzen gara? Gu errealitateetik kanpo bizi gara? Ez, jaun-andreok, Ahaldun Nagusi honen eta gobernu talde honen ezaugarri nagusienetakoa hurbiltasuna da. Aldundia kalean dago eta egon behar dau, entzuten dakielako eta akordioak zabaltzeko borondate zintzoa eta jarrera daukalako. Hori ukatzen dabenak, jar daitezela mahai gainean adibideak eta datuak, guk aztertu eta berba egingo dogu. Aldundi honek entzuten badaki: berbetan hurbiltzen dana entzuten dau, sarritan formak galduz hurbiltzen dana be entzuten dau eta gehiago esango dot: ez datorrena hurbiltzen be, bere eskubidea daukalako harek be, galdetu egiten deutso. Holan lortzen dalako errealitatearen argazki ahalik eta fidagarriena izatea. Datozenak, ez datozenak, zaratatsuak eta isilik dagozenak, danak kontuan hartuta. Entzute horren ondorioetako bat, daukaguzan herritarren azken erantzunak dira. Ziur nago zeuek be hori ondo begiratuta daukazuela.

Eta, zer esaten dabe bizkaitarrek? 'Zelan bizi zara Bizkaian?' galdetzen jakienean, 8ko nota jartzen dabe eta galdetuen artean %92rentzat oso ona edo nahiko ona da euren bizi-kalidadea. Beste alde batetik, aurrera begira zelan ikusten daben etorkizuna galdetzen jakenean, 7,2ko nota jartzen dabe eta galdetuen %72rentzat oso baikor edo nahiko baikor ikusten dabe etorkizuna. Bakotxak bere irakurketa egingo dau, baina nire ustez badagoz ondorio esanguratsu batzuk. Alde batetik, ondo bizi da gehiengo zabal bat, baina etorkizunak kezkatzen dau; eta beste alde batetik, badago %8 bat ez dala hain ondo bizi esaten dauena, eta %1ek txarto edo oso txarto bizi dala esaten deusku. Dana dago ondo? Ez, duda barik. Helburu bitan behintzat lan egin behar dogu: bat, txarto bizi dirala esaten daben horren zergatia aurkitu eta konpontzen ahalegindu; eta bi, etorkizunera begira esperantza hobetzen horretan be bai.

Entzute honen ondorioz, gizartearen momentuko kezka nagusiak be badakizkigu zeintzuk diran: etxebizitza %53rentzat lehen kezka da; langabezia edo jarduera ekonomikoa %41entzat; segurtasun eza %32rentzat; eta osasuna %23rentzat. Kezka horri aurre egiteko, Bizkaiko BBNek eta BFAk ez daukie konpetentzia zuzena eta nagusia, hori danok dakigu hemen, eta ez nabil borondate edo konpromisuari buruz. Hemen jesaten garen 51ok badakigu, edo jakin beharko geunke behintzat, zeintzuk diran gure ahalmenak eta eginbeharrak instituzino honetan. Baina Etxanobe Ahaldu Nagusia entzun badogu, argi geratu da arazo honeei aurre egiteko lana egingo dauela BFAk, eskaintzak eta ekintzak eginez. Horra bideratutako neurri batzuk jada martxan doguz: azken errebesio fiskalak, adibidez, horretan eragin zuzena eukiko dau bai etxebizitzan eta bai jarduera ekonomikoan be. Errebesio horretan ez zinien egon batzuk, ez EH Bildu ezta PP ere. Biok ezetzaren multzoan geratu zinien alkarrekin, baina ganbara honetako hiru alderdi desberdin baiezkoaren multzoan jarri ginien eta atera gendun aurrera Foru Araua.

Alderdi desberdinen artean adostasuna zabaldu eta bizkaitarren onerako adostu eta aurrera egin. Baina, oin arte egindakotik aparte, aipatu dira eginkizun honetan zeintzuk diran neurri barririk. Horreegaz be, jungo gara aurrera ateratzen, eta kasu horretan be, bakotxak erabakiko dau ze multzotan kokatzen daben bere burua edo taldea. Akordioetarako prestutasun berbak bai, baina jarraian, ezezkoaren multzoan edo baiezkoaren multzoan, ikusiko dogu non kokatzen dan bakoitza.

Baina danari buruz zintotasunez berba egiten badogu, ezer ezkutatu barik, badira be kezkak, BFaren konpetentzia zuzena eta nagusia diran eremuetan: Garraioa eta mugikortasuna %8rentzat ardua nagusia da; Errepideak eta azpiegiturak %8rentzat, eta pertsona nagusientzat arreta edo asistentzia %1rentzat. Portzentaiek ez dira altuak, ez, hori lan onaren seinale izan ahal dala uste dot nik (zuek ziur beste irakurketa bat daukazue), baina portzentaie horren atzean pertsona asko eta asko dagoz, eta eurentzat esandakoa arazo nagusi bat da. Hor lanean jarraitzea beharrezkoa da, buru belarri. Zerbitzuei dagokienez, antzekoa gertatzen da. Balorazino batzuk oso onak dira. Eta ez dira nireak, ez nire alderdiarenak, bizkaitarrenak dira: 7ko nota egoitza eta eguneko zentruer; 7,1 BizkaBiziri; 7,2 Gertu bulegoetan eskaintzen dan zerbitzuari; 7,3 natur gune babestuen mantenimendu eta kudeaketari; 7,3 hondakinen kudeaketa eta garbigune zerbitzuei; 7,4 EtxeTIK programari; 7,5 museoan foru sareari; 7,7 Aldundiak egiten daben hondartzen kudeaketari, edo 8,2 suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuei.

Baina hau holan izanda be, badagoz eskualde batzuk, adibidez errepideei edo garraio-zerbitzuei nota baxuagoa emoten deutenak. Hor sartu beharra dago, eta bistan dago ondo baloratuta egon arren hobetzen jarraitu behar dala, gehienbat gune konkretu batzuetan. Abiapuntua ez da txarra, eta abiapuntu honetara ekarri gaituen kudeaketa ereduarekin jarraitu behar dogu. Geldi egonda ez da lortzen... eztabaida antzuetan ibilita be ez. Lana egin behar da: entzun, aztertu eta jarraitu lan eta lan, instituzino guztien artean. Hemen ezin da inori eskatu baloia zelaitik kanpora botatzeko, ezin dau inork albora begira geratu, ez instituzinoek ez alderdiok: bakoitza gagozen arduretan. Herritarrek guk hemen lan ona egiteko aukeratu gaitue, eta gu horretan egon behar gara. Herritarrek instituzinoetan dauken konfiantzak be badauko hobetzeko tartea. Kasu honetan, Aldundiari 6,2ko nota jartzen deutso bizkaitarren batez

bestekoak, konfiantza gehien emoten deutsien instituzinoa da Aldundia. Udalen kasuan, adibidez, 5,9ko nota emoten deutsie. Danok daukagu hobetzeko marjena, batzuk beste batzuk baino gehiago, kasu honetan be. Horrek dira datuak, horrek dira herritarrek emoten dabezen erantzunak.

Beste guztia gure diskurtsoa da. Hitz politikak, irakurri barik esaten badira hobeto, kamerari begira egiten bada askoz hobeto: titularra bilatu, sare sozialetan eskaintzeko bideo labur politikak egin... hizkuntza bietan bada, ederki, eta hirugarrena sartzen badogu, notarako modukoa. Baina hortik aparte, zein da gure benetako zeregina ganbara honetan? Zertarako aukeratu gaitue bizkaitarrek? Zeintzuk dira gure proposamen zehatzak? Batzuren lana atril honetara mugatzen da. Hamendik kanpo, zer eskaintzen deusiezue herritarrei?

Lidergo falta, ezer berririk ez dagoela eta proiektu jarraitzaile moduko baieztapenak entzun doguz gaur hemen. Ni neuk ez dot uste itxurakeriara mugatzen dan lider handi bat behar danik Aldundiaren buru. Kudeaketan liderrak, hurbiltasunean liderrak, entzuten dabenak, adostasunak zabaltzen dabezenak eta emondako hitza beteten dabenak dira behar doguzan liderrak, nire uste apalean. Diskurtso hutsetik urten eta ekintzetara doazen liderrak. Baina gu guztion gaintetik (nire gaintetik, zuen gaintetik) beti, beti, gizarteak, bizkaitarrek aukeratuko dabe zer nahi daben. Nire inguruko gizarteak beste balio batzuk nahi dauz: galdetu zuen inguruko pertsoneri, enpresei, elkarteei... Zuen alkateei be, zergatik ez? Gaur egun, Aldundi honek behar izan dauenean, urrun edo hurbil ikusi dabez? Adostasun-jarrerako Aldundia izan dan edo ez. Aztertu ganbara honetan hartu doguzan erabakiak be: gehiengo osoa izan arren, zenbat aldiz erabili dogu gehiengo oso hori? Eta zenbatetan ez dogun erabili, nahiz eta zilegitasun osoa euki? Ez da erraza ulertzeko, eta kontraesana dirudi: esku batez Aldundi honen lana, politikak edo kudeaketa gogor kritikatzeara, eta aldi berean beste eskuaz, aurrekontuei ia aho batez baiezkota emotea. Gogoratu: 2025eko aurrekontuak, ganbara honetan, 51 batzarkidetatik bakarrik 5ek bozkatu ebezan kontra. Aurrekontua da gobernu batek daukan tresnarik garrantzitsuenetako bat bere politikak eta egiteko era aurrera eramateko; aurrekontuen dagoz baliabideak, Aldundiaren politikak aurrera eramateko eta gizarteaz daukagun konpromisua betetzeko. Eta %90etik gorako babesa jasotzeak, nire ustez, aurrekontu horri eta berari esker aurrera aterako diran proiektuei eta politikei zilegitasun osoa emon deutso. Adostasunak lortzeko jarrera eta gaitasuna erakutsi dau Etxanobe andreak buru daben Aldundi honek. Ganbara honetan ez da sekula halakorik ikusi, eta hemendik kanpoko beste ganbaretan be ez da askotan topauko horren adibiderik. Hasi zeuek bilatzen! Nik balore eta jarrera horreek baloratzen dodaz: emon hori, eta ez diskurtso hutsak, besteen gaintetik agertu eta epaitu nahi daben lider modukoak, curriculum egokirik eta garbirik be ez dabenak. Lider tipo hori, hartu zeuek zeuentzat: guk ez dogu nahi. Etxanobe Ahaldun Nagusi andrea eta Aldundi honetako gobernu-talde osoa, gure taldearen izenean diotsuet: hurbiltasuna, adostasunak lortzeko jarrera zuzena, gizartearekiko konpromisua eta emondako hitza betetzea. Horixe da Aldundi honen izaerea eta nortasun-zigilua, eta horixe izan behar dau etorkizunean be. Bide horretan zagoze eta egon behar dozue; guri, talde honi, bide horretan alboan izango gaituzue.